


# ZURRIOLA

# Ikastola



**2023-2024 ikasturtea**

**HAUR HEZKUNTZA-4 URTE**

**AURKIBIDEA:**

1. HAURREN GARAPENA
2. ZURRIOLA IKASTOLAKO IKASLEAREN IRTEERA PROFILA
3. METODOLOGIA
4. OSASUN ARRETA
5. IRTEERAK, JARDUERAK ETA JAI OSPAKIZUNAK
6. EUSKARAZ BIZI PROIEKTUA
7. GURASOEKIN HARREMANA
8. GURASOEN PARTAIDETZA IKASTOLAN
9. GELAKO GURASO ORDEZKARIAK
10. KOMUNIKAZIOA
11. BESTE OHAR BATZUK
12. ERANSKINAK

## 1. HAURREN GARAPENA

---

Hurtzaroa oinarrizko garaia da orduan ezartzen baita gerora ere izango den pertsonaren izatea. Hau jakina zen, baina azken urteetan, zientzian oinarrituz, ikerketek ere hori baieztatu dute.

Hezkuntzaren lehen etapa honen xede nagusia haurren garapen osoa bideratzea da, ikaskuntza aktiboa eta autonomia baimenduz, eta jolasean oinarrituz. Haurra izango da bere bidearen protagonista, eta heldua umearen bidelagun.

Haurren garapen osoaren ikuspegitik, haurra ulertzeko moduaren oinarrizko printzipio metodologikoak dira ondorengoak:

- **Errespetua haurren izate osoari.** Haurra bizitzaren lehenengo unetik pertsona aktiboa, bizia, sentikorra eta harbera da. Haur bakoitzak bere garapen-erritmoa dauka.
- **Konfiantza haurren berezko garapen-ahalmenari.** Bere jardura autonomia eta erritmo biologikoak errespetatuz konfiantza izan beregan, bere gaitasunak garatuko baititu.
- **Haurren ziurtasun fisikoa eta emozionala bermatu** behar dugu, baldintzak eskainiz eta bere beharrekiko sentikortasuna adieraziz.

Hau guztia honela izanik, hezitzaileak haurren ondoan egon behar du, bere bidelagun izan behar du. Helduak haurri segurtasuna eman behar dio, egiten dituen behaketetan oinarrituz testuinguruak sortu behar ditu haurrak era autonomoan esploratzeko, esperimendatzeko eta jolas librean aritzeko.

## 2. ZURRIOLA IKASTOLAKO IKASLEAREN IRTEERA PROFILA

---

Ikasle batek Zurriola Ikastolan egin dezakeen ibilbidean, maila eta etapa ezberdinak zeharkatuko ditu. Ibilbide honetan guztian bere garapen integrala lortzea da gure helburua. Horretarako **Zurriolako Ikaslearen Irteera Profila** definitu genuen Ikastolako guraso eta irakasleen artean. Ikastolako hautu pedagogikoa eta jarduna Zurriola Ikastolako Ikasle orok, etapa bakoitzari egokituta, garatu beharreko ezaugarri horietara bideratuta dago.

Hauek dira Zurriolako Ikaslearen Irteera Profilaren ezaugarriak (ZIIP):

- EUSKALDUN EUSKALTZALEA
- KOMUNIKATZAILE ELEANITZA
- BIZIKIDETZAREN SUSTATZAILEA
- INGURUMENAREKIKO ERRESPECTUAREKIN KONPROMETITUA
- OSASUN OREKA BILATZEN DUENA
- JAKIN-MINA DUENA
- AUTONOMOA
- KOOPERATIBOA
- KRITIKOA
- EKINTZAILEA
- SORTZAILEA
- BALIABIDE TEKNOLOGIKO ETA DIGITALEN ERABILTZAILE ERAGINKOR ETA ARDURATSUA

### **3. METODOLOGIA: ESPAZIOAK ETA EGUNEROKO DINAMIKA**

---

Ikastolan haurarentzat proposatzen ditugun espazio, material, jarduera eta denboraren antolaketak haurren ongizatean eta garapenean eragin zuzena dute. Honek gure antolaketan zein espazioetan etengabeko azterketa egitera behartzen gaitu, haurren garapen osoan (psikomotorean, afektiboan, sozialean zein kognitiboan) eragina baitu.

#### **3.1 ESPAZIOAREN ANTOLAKETA**

Jolasa gozamina edo plazerra baino gehiago da, behar bat da. Haurarentzat jolasa bere burua eta inguratzen duen mundua ezagutzeko eta barneratzeko duen lehenengo ikaskuntza-tresna da.

Gainera, jolasa hezkuntza prozesuaren bide naturalena da bizitzako lehen urteetan batez ere. Horregatik uste dugu gela guneetan antolatzeak, hau da, espazio desberdinak eskaintzeak, haurri espontaneoki jolasten eta berez ikas dezan laguntzen diola. Izan ere, haurren munduan, jolastea eta ikastea gauza bera da, batera doaz; haur bat jolasten dabilenean ikasten ari da.

Gure espazioetan oinarrizko gune batzuk dauzkagu. Hauetariko bakoitzean haurren jolaserako aberasgarria izango den materiala eskaintzen dugu. Bestalde, tarteka, beste gune batzuk ere izango ditugu, momentuan lantzen ari garen gaiaren edo haurren interesen arabera.

#### **3.1.1 GUNEAK:**

##### **Jolas sinbolikorako gunea:**

Gune honek haurren sozializazioaren garapenerako beharrezkoak diren elementuez baliatzeko bidea ematen digu, hala nola, familiaren imintzioa, rolak, ekintzak, pertsonen arteko harreman mota ezberdinak, jokabide mota egokiak...

Funtzio sinbolikoak eragin handia du garapen intelektualean, baita garapen afektiboan ere.

**Materiala:**

- Panpinak, ontziak, mota desberdinetako oihalak, arropak, mozorroak,...
- Aukera asko ematen dituen baina funtzio zehatzik gabeko materiala: fruitu lehorrak, lokotsak, hostoak, makiltxoak,...

**Adierazpen plastikorako gunea:**

Gune honetan komunikaziorako aukera desberdinak eskainiko dira. Sormenari, adierazpen grinari eta komunikatzeko beharrari eskaintzen zaion gunea da. Haurrari bere emozioak kanporatzeko eta bideratzeko adierazpen plastikoaren erabilera eskura jarri nahi zaio manipulazio eta esperimentazioaren bidez. Prozesuari emango zaio garrantzia eta ez emaitzari.

**Materiala:**

- Plastilina, argizarizko margoak, tenpera, orriak, txotxak, kola, errotulagailuak, ingurune naturalak eskaintzen dizkigun materialak, berrerabiltzeko materiala, tresna desberdinak,...

**Liburutegia eta hizkuntz idatziaren gunea:**

Hizkuntza adierazpenak bideratzeko, eta hizkuntza idatziarekin harremanetan jartzeko gunea izango da. Hizkuntza komunikazio tresna izanik hauek garatzeko erabilera desberdinak landuko dira, ahozko nahiz gorputzeko lengoaiaren bitartez. Modu berean irakurtzeko zaletasuna suspertzen lagunduko duen jarduerak bideratuko dira. Gune bat baino gehiago izan ditzakegu espazio bakoitzean.

**Materiala:**

- Testu mota desberdinak: ipuinak, aldizkariak, errezeta liburuak, egunkariak...
- Argazki albumak: familiakoak, ikastolan eta hemendik kanpo bititako argazkiekin osatutakoak,...
- Txotxongiloak
- Hiztegi txartelak, gelako izenen txartelak,...

Liburutegian goxo egoteko eta atsedena hartzeko espazio bat ere badago, haurrak hala behar duenean bertara jo dezan.

### **Jostailu-gunea:**

Gune honek honako hauetan garatzen laguntzen du: pentsamendu logikoa, arreta, oroimena, asoziazio eta pertzepzio gaitasunak, espazio eta denboraren egitura, koloreen ezagutza, koordinazio ikus-motorra eta aspektu motorren garapenean. Era berean, sormena eta kontzentrazioa garatzen laguntzen du ere. Gune bat baino gehiago izan dezakegu espazio bakoitzean, bertan eskaintzen den materialaren arabera .

### **Materiala:**

Puzzleak, tamaina eta mota desberdinetako eraikuntzak, enkajeak, animaliak, kotxeak, mahai jolasak, matematika manipulativoki lantzeko egituratutako eta egituratu gabeko materiala,...

### **3.1.2 PSIKOMOTRIZITATE GELA**

Haurra, gorputzaren bidez bizi eta komunikatzen da. 6 urtetik aurrera, gorputzaren bidezko komunikazioa aldatzen doa, eta ahozko hizkuntzak indar handiagoa hartzen du.

Psikomotrizitate gela, gorputzaren bidez adierazpen librea ahalbidetzen duen unea da, "gorputzean" eta "gorputzaren bidez" adierazteko bidea ematen duen testuinguru bat; norberaren "Nia" eraikitzen laguntzen duena.

Psikomotrizitate gelan proposatzen dugun saioan haurrak "bidaia" bat egingo du gorputz osoa inplikatzeko duen jolasetik adierazpen sinbolikora. Proposamen hau orokorra da baina adinaren arabera saioak aldatuko dira, haurren garapen fasea dela eta.

Psikomotrizitate saioetako jarduera, ondoren adierazten dena lortzera bideratua izango da:

- Haurren komunikazioa erraztea, hasieran hitzik gabekoa, eta pixkanaka hizkuntzaren bidezko komunikazioa sartuz.
- Ekintza eta jarduera sortzaileak estimulatzea.
- Haurren autonomia garatzea.

Psikomotrizitate gelara talde bakoitza astean behin joaten da.

### **3.1.3 INGELESA**

Haur hezkuntzako etapan gure helburua da haurrengan ingelesarekiko interesa piztu eta harekin harreman positibo bat eraikitzea, betiere modu ludiko eta atseginean. Ingelesa astean bitan eta goizez izango dute.

Ingeleseko gelan saio gidatuak egiten dira eta bertan Artigal-en "Ready for a Story" metodologia jarraitzen dugu 4 eta 5 urteko haurrekin (Eleanitz proiektuko lehenengo zatia). Artigal-en metodologia istorioetan oinarritzen da eta hasieran antzerki bidez lantzen dira: haurrek pertsonaiek esaten duten guztia errepikatzen dute, erritmoa eta keinuak imitatuz. Emozioz jositako ipuinak dira eta haurrak ez dira ikusle huts, aktoreak baizik. Geroago istorioari buruzko irudiak erakusten zaizkie eta euskarri bisual horri esker aurrez landutakoa hobeto barneratzen dute. Saio gidatu hauek trinkoak eta intentsitate handikoak izaten dira eta ikasleen arreta eta partaidetza handia eskatzen dute.

Saio gidatuez gain ingeleseko irakaslea haurren espazioetara joango da noizean behin proposamen ezberdinak eskainiz. Ingeleseko irakasleak soilik ingelesez egiten duenez, haurrek aukera gehiago izango dute eguneroko beste egoera batzuetan ere ingelesez aritzeko.

### **3.1.4 BASOESKOLA PROIEKTUA**

Haurtzaroan naturarekin kontaktua izateak onura ugari ditu: **ikasleen jarrera, motibazio maila eta komunikazio gaitasunak hobetzen** dira. Arazo fisiko, psikiko eta kognitiboak murrizten dira (**osasuntsua da psike eta gorputzerako**).

Horrez gain, **sormena** lantzen da, **abstraktua ikusgarri** bihurtzen da, haurren arteko berdintasuna sustatzen da eta etorkizun jasangarriago baten aldeko jarrerak lantzen dira (naturarekin kontaktu estuan dauden haurrek natura gehiago zaintzen dute). Natura interpretatzen eta ezagutzen ikasten dugu (alfabetizazio berdea). Beraz, garrantzitsua da naturan hezte hura ezagutu eta kontserbatzeko, eta baita haurraren garapenean positiboki eragiteko.

2019-2020 ikasturtean Ekoguneko pedagogiako taldearekin Basoeskola proiektua martxan jarri genuen. Iazko ikastute osoan zehar HH5eko haurrek astean behin inguruan identifikatutako natur-eremu batera joan ziren. HH4ko taldeek berriz, maiatzan saio batzuk



egin zituzten Ekoguneko teknikariarekin batera. Aurten ere, HH4ko taldeekin udaberrian gauza bera egiteko asmoa daukagu.

Aurrerago proiektuaren inguruko informazio gehiago izango duzuen arren, garrantzitsua iruditzen zaigu natur-eremura joateko arroparen inguruko zenbait ohar ematea.

### **Basoeskolarako arropa:**

Eguraldia zein eremua edozein izanda ere, haurrek eta helduek kanpoan egonez gozatu behar dute eta, horretarako arropa egokia eraman behar dute. Helburua gorputzean tenperatura orekatua mantentzea da. Horregatik aldatu egin behar da arropa eguraldiaren nahiz urtaroaren arabera, baita jolas motaren arabera ere. **Kolore biziak** erabiltzea komeni da, segurtasunerako. **Kapaka janzteia** interesgarria da. Horrez gain, **erosotasuna** eta **eraztasuna** bilatu behar ditugu janzteko eta eranzteko.

### Udaberri-uda partean

- **Oinetakoak** (irristatzen ez diren zoladun zapatilak)
- **Galtzak eta kamisetak** (mauka luzekoak eguzkiaren erredurez, zauriez eta intsektuen ziztadez babesteko)
- **Zira edo txubaskeroa** (fina eta iragazgaitza euria egiten duenerako)
- **Bisera** (lepoa eta belarriak eguzkitik babesteko)
- **Motxila txiki bat:** ura, hamaiketakoa eta muki zapiak.

### **3.1.5 ELKARBIZITZA ETA “KUKU! EMOZIOEN PROGRAMA” HAUR HEZKUNTZAN**

Alor honek berebiziko garrantzia du gure egunerokoan. Ikasleen ikasketa-prozesua behar bezala eman dadin, inguru seguru batetan sentitzea ezinbestekoa da, non errespetuzko jokabideak soilik onartuko diren. Ildo honetan, azken urteetako ekimenei jarraipena

emanaz, beste pauso bat eman dugu. Alde batetik, Haur Hezkuntzan EHiko "KUKU! EMOZIOEN PROGRAMA" abian jarri genuen iazko ikasturtean. Bestetik, LH1en hasita eta DBH3. maila bitarte KiVa programa dugu martxan.

Ikastolen Elkartek Haur Hezkuntzarako "KUKU! EMOZIOEN PROGRAMA" garatu du. Programa honek, dagoeneko egunerokotasunean lantzen ditugun emozioen munduan sakontzeko aukera emango digu: oinarriko emozioak hurrekin landu, norberaren emozioak ezagutu, hauek kudeatu eta poliki-poliki besteenak hobeto ulertzen hastea, alegia. Hau guztia egiteko, gaian adituak diren profesionalek eskainita formakuntza bat jasoko dugu, baita berriaz sortutako materiala eskura eduki ere (album ilustratuak, hormairudiak, emozio txartelak...). Ikastolan lantzen duguna familiekin partekatzea ere garrantzitsua dela uste dugunez, Ikastolen Elkartek antolatutako saioetan ere parte hartzeko aukera izango dute gurasoek, baita materiala etxean izateko aukera ere. Azken guzti honen inguruan, zehaztasun gehiago emango dizkizuegu informazioa eduki ahala.

### **3.2 ADIN ANIZTASUNA BERMATZEN DUEN ANTOLAKETA**

Gure egoitzan adin ezberdinen arteko komunikazioa baimendu nahi dugu haurrarentzat aberatsa delako. Gazteagoek nagusiagoengandik imitazioz ikasten dute, eta nagusiar, zaintza jarrera hartzeaz gain, pentsamendua egituratzen laguntzen dio.

Jendartean adin ezberdinetako haurrak naturalki elkartzen dira, ume bakoitzak askatasuna du nahi duenean nahi duenarekin egoteko, beti ere bere interesen eta beharren arabera. Ikastolan hurrei modu honetan harremantzeko aukera ematea garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Honela, egunerokotasunean denboran eta espazioan honetarako aukerak sortzen ditugu hau guztia bat-batekotasunez gerta dadin.

#### **4.3 DENBORAREN ANTOLAKETA: EGUN BAT IKASTOLAN**

<b>9:00</b>	Sarrera. 9:30ak arte harrera malgua.
<b>9:00-10:40</b>	Zirkulazio autonomoa. Jolas autonomoa.
<b>10:40-10:50</b>	Espazioak jasotzea.
<b>10:50-11:30</b>	Hamaiketakoa (fruta). Batzarra elkargunean (erritualak, ohiturak, abestiak, gaiari buruz elkarrizketak, ipuina,...).
<b>11:30-12:00</b>	Ataria.
<b>12:00-12:30</b>	Hamaiketakoa (gailetak, ogitxoak, tortitak,...). Jangelara edo etxera joateko prestatzea.
<b>12:30-14:45</b>	Jangela eta ataria. Musikako saioa astean behin.
<b>14:45-15:15</b>	Harrera eta elkarguneko jarduerak.
<b>15:15-16:00</b>	Atarira jaisteko aukera.
<b>16:00-16:30</b>	Zirkulazio autonomoa. Jolas autonomoa.
<b>16:30-16:45</b>	Agurra eta etxera joateko prestatzea.
<b>16:45</b>	Irteera.

Bi momenturi garrantzi berezia eman nahi diegu:

**Harrera garaia:** Goizeko lehen momentuari "harrera garaia" deitzen diogu, eta honen helburua hurrari eta familiari arreta eskaini ahal izatea da. 9:00-9:30 bitartean luzatzen da eta momentu honetan familia eta haur bakoitzari harrera pertsonalizatuena egiten

saiatuko gara. Honela, haurrak erabakiko du prest dagoenean zein espazioetara joan nahi duen jolastera, besteekin elkarrizketa bat hasteko edo libururen bat lasai begiratzeko.

**Agurra:** Egunaren azken momentuari "agurra" deitzen diogu, eta honi ere garrantzia ematen diogu. Aukera ematen du egunaren errepassoa egiteko: egin duguna gogoratu, uste gabe sortu direnak aipatu, sentipenak adierazi...

HH4 eta HH5 eko haurren kasuan, ikastolara goizez eta arratsaldez etortzea gomendatzen dugu.

### **3.4 EKINTZAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA**

Ekintzan oinarritutako ikaskuntzari ematen diogu garrantzia. Haurrak, sortuko zaizkion erronka berriei aurre eginez, era esanguratsuan ikasiko du eta, ohartu gabe, hezkuntzaren oinarrizko konpetentzia orokorrak garatuz joango da.

Adimen aniztasunak landu nahi ditugu baita ere, zaletasunak eta nahiak bultzatuz eta errespetatuz. Norberaren interesetatik jaiotzen baita ikasteko motibazioa eta honek eragiten baitu ikasketa esanguratsua. Horretarako, testuinguru anitzak ipintzen ditugu.

Haurrak bere interesetatik ikasten du. Horregatik, helduok adi egon behar dugu bere barruko motibazioa aktibatuz. Sariak eta zigorrak ez dira lagungarriak. Lortu duen arrakasta da saririk hoberena, eta zigorrek asko kulpabilizatzen dute.

Hau guztia giro atsegina sortu dadin zainduz, honek haurrari ziurtasuna ematen diolako. Errutinak eta ohiturak (arduradunen lanak adibidez) ohiko moduan lantzen jarraituko dugu haurraren garapenerako lagungarriak direlako. Mota honetako ekintzek ziurtasuna ematen diote haurrari, eta pentsamendua antolatzen laguntzen diote. Haez gain, beste hainbat jarduera ere modu desberdinean landuko ditugu:

**Jolas autonomoa:** Aurretik aipatu bezala espazioak guneetan antolatuta ditugu eta bertan, jolasaren bitartez, haurrak hainbat gaitasun garatuko ditu. Gune hauetan tarteka hezitzaileek prestatutako proposamenak aurkituko dituzte eta beste batzuetan bertan dagoen materialarekin librean aritzeko aukera izango dute. Zirkulazio autonomoak irauten duen bitartean haurrak aukeratzeko aukera izango du: non, zertara eta zeinekin jolastu nahi duen. Hau guztia, norberaren autonomia eta inizatibaren garapenaren oinarri izango delarik.

**Proposatutako jarduerak:** Haur taldeari interesgarriak zaizkion gaietatik abiatuta bere gaitasunak garatzen lagunduko dioten jarduerak proposatzen zaizkio: ipuinak, abesti-jolasak, olerkiak, asmakizunak, antzerkiak, ...Haurrek hiruhilero beren karpeta eramango dute etxera. Haurrekin karpetan dagoena begiratzeko tarte bat hartu ezazue, mesedez.

**Proiektuak:** Gure proposamenez gain, adi egoten gara haurrak dituen interesetara eta hauek oinarri hartuz beste hainbat gai edo proiektu landu ditzakegu. Haurrak hamaika galdera ditu ezagutzen ari den munduaren inguruan eta erantzun bila dabil, helduok askotan ez dauzkagunak. Honelako galderak aprobetxatu egin behar ditugu, elkarrekin ikertuz ikasteko.

### **Mugen eta arauen garrantzia:**

Ikastola haurren "bigarren etxea" izango da eta, etxe guztietan bezala, arauak izango ditugu. Haurrarentzat, eta gizakiontzat oro har, arauak oso garrantzitsuak dira: errealitatea ondo egituratzen laguntzen digute eta honek segurtasuna ematen digu. Adinean aurrera joan ahala arauen konplexutasuna desberdina izango da baina haur hezkuntzako adinean arauak izan badiugu: sinpleak eta argiak, koherenteak eta haurrarentzat ulergarriak, elkarbizitzan lagunduko digutenak eta hain garrantzitsuak diren sozializatorako ezinbestekoak direnak. Honetan guztian, helduon ardura da haurrarentzat eredu onak izatea: argiak, koherenteak, ulergarriak eta errespetuzko harremanak sustatzea.

## **4. OSASUN ARRETA**

---

**Haurren inguruko datuak eguneratuak izan ditzagun, haurraren osasun egoeran aldaketarik izanez gero erreferenteari honen berri eman behar diozue.**

Epe luzerako osasun egoeran aldaketak: intolerantzia, alergia edo bestelakorik diagnostikatuko balioite, sendagilearen informea eta protokoloa ekarri beharko diozue **tutoreari** (arrisku egoeretan nola jokatu behar dugun jakin dezagun). Gainera, jangelan geratuko balitz, bertako arduradunarekin (Pilarrekin) hitz egitea eskatzen dizuegu, haurra

ahalik eta modu egokienean artatu dezagun. Haurrak arrisku egoeretan sendagai berezirik beharko balu, ekar ezazue ikastolara eta tutoreari azaldu honen erabilera.

Epe motzerako osasun egoeran aldaketak: haurra ikastolara etortzeko ondo badago baina ikastolan dagoen bitartean sendagairik hartu beharko balu (antibiotikoa adibidez), dosia prest ekarri beharko duzue, ondo babestua, dosia/ordua/izen-abizenak adieraziz. Guk banatutako ziurtagiri bat ere bete beharko duzue. **Mesedez, ahal den kasuetan, sendagaia ikastola orduz kanpo ematea eskatzen dizuegu.**

Zorriak eta heste-zizareak: oso kutsakorrak dira. Guztiok arduraz jokatzea eskatzen dizuegu, kutsadura zabaldu ez dadin.

Haurra gaixo badago ez da ikastolara etorriko. Besteak beste, hurrengo kasuak bereziki kontuan hartzea eskatzen dizuegu:

- Haurrak gaixotasun arrunta duenean (sukarra  $\geq 37^{\circ}\text{C}$ , eztula,...).
- Gaixotasun kutsakorraren sintomak agertzen ditenean, hots: sukarra eta eztarriko mina-etengabe edo irenstean, konjuntibitisa, barizela, eskarlatina, estomatitisa, botaka, beherakoa behin eta berriz, belarriko mina, haserrekortasuna edo ezinegona badu, ondoeza,...
- Haurrak beherakoa duen kasuetan sintomak desagertu arte ez da ikastolara etorriko. 24 orduz beherakorik gabe egon arte ez da ikastolara etorriko.
- Haurrak azken 24 orduetan bitan edo gehiagotan botaka egin duenean eta gaitz kutsakor batek eraginda izan baliteke edo haurrak deshidratatzeko arriskurik balu.

## 5. IRTEERAK, JARDUERA OROKORRAK ETA JAI OSPAKIZUNAK

---

### 5.1 IRTEERAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK:

Urtean zehar hainbat **irteera** egin ohi dugu, besteak beste, helburu hauekin:

1. Haurren autonomia garatzea.
2. Haurren arteko harremanak sendotzea.
3. Lagun artean eta naturarekin harremanean ondo pasatzea.
4. Ikastolako espaziotik kanpo euskaraz bizi-esperientziak bizitzea.
5. Programatuta ditugun helburu didaktikoak lantzea.

6. Ingurunea errespetatzen ikastea.
7. Ikastola kokatuta dagoen auzoak eskaintzen dizkigun baliabideak ezagutzea eta hauetaz gozatzea.

Data gerturatu ahala burutuko ditugun irteeren berri emango dizuegu. Ikasturtean hainbat goiz pasa eta egun osoko irteerak egin izan ditugu maila honetan: Uliako lore-baratza, inguruko parkeak, hondartzara, Gladys-enea, Aieteko parkea, Urgull mendia, maiatzean Arotz-Eneako Aterpetxera gaua pasatzera...

**Jarduera osagarriei** dagokienean ere, informazio gehiago izan ahala, daten berri emango zaizue. Maila honetan egin izan ditugun jarduera osagarriak hurrengoak izan ohi dira:

- TINKOk antolatuta, zinema euskaraz.
- Euskadiko Orkestraren egoitzan emanaldia.
- Ikasturte zehar Larrotxene liburutegira hilean behin arratsaldez.
- Egiako-haur txokora eta Okendoko haur-txokora goiz pasa.
- Egokiak diren heinean Okendon antolatzen diren erakusketak ikusi.
- Lantzen ari garen proiektuaren baitan interesgarriak izan daitezkeenak.
- Kontzertu pedagogikoa Zurriola musika eskolako irakasleek eskainia.

## **5.2 JAI OSPAKIZUNAK:**

Ikasturtean zehar Euskal Herriko eta Donostiako kultura ondarearen ezaugarri diren hainbat ospakizun burutzen ditugu. Gure gizartearen kultur-adierazpen hauek haurrek ezagutzea eta horiekiko jakin-min eta begirunea izatea ikastolaren xedeetariko bat da. Hortaz gain, momentu aproposak izaten dira Ikastolako ikasle, irakasle eta familiak elkartzeko eta gure kultura eta izaera auzora zabaltzeko.

Ospakizun hauek hurrengo datetan egitea aurreikusten dugu:

- Euskararen eguna: abenduaren 1an.
- San Tomas: abenduaren 20an.
- Olentzero gabon kantak: abenduaren 24an.
- Danborrada: urtarrilaren 19an.
- Kaldereroak: otsailaren 2an.
- Inauteriak : otsailaren 9an (mozorro librea).\*

- Korrika: martxoaren 14tik 24ra bitarte, data zehaztear.
- Ikastolaren Eguna: data zehaztear.

\*Ohikoa den moduan, Kaldereroak eta Inauterien artean astebeteko epea soilik dagoenean, bigarrenengo honen konpartsa bertan behera gelditzen da. Ondorioz, 2024. urtean ez ditugu Euskal Inauteriak ospatuko.

Data hauek gerturatu ahala ospakizunaren inguruko informazio gehiago helaraziko dizuegu.



## 6.EUSKARAZ BIZI PROIEKTUA

---

Zurriola Ikastolako sorrera-helburua euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Areago, Zurriolako ikaslearen irteera-profileko lehen ezaugarria *euskaldun euskaltzalea* izatea da. Hortaz, horretan saiatzen gara bai gelan baita gelaz kanpo ere. Proiektu honen helburu nagusia ikastolako partaide guztiengan, ikasle, langile eta gurasoengan euskararen erabilera sustatu eta eragitea da. Helburua partaide guztien artean euskara normaltasunez erabiltzea da. Horretarako plangintza zehatzak bultzatzen ditu proiektu honek.

Irakasle eta langile guztiok konpromezu argia hartzen dugu proiektu honen alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntza erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu. Horren harira, Ikastolako Gurasoen Euskara Batzordea lanean ari da eta aurten ere, indar berezia jarriko da geletako ordezkari eta gainerako gurasoen parte-hartzean. Txosten honen amaieran duzue batzordeak sorturiko dekalogoa.

**Guraso euskaldunek** beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntza erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza ikastolako eremu guztietan, mesedez.

**Guraso erdaldunek ere**, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatuz (euskarazko komunikabideak adibidez), seme-



alaben euskararen erabileran modu positibo batean eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira. Zentzu horretan, Euskararen erabileraren inguruko ardurarekin jarraiki, aurten ere **Gurasoentzat euskara ikastaroa** eskainiko da. Zuetariko bakoitzak euskaraz hitz egiteko egiten duen saiakerak zuen seme-alabentzat duen garrantziaz jabetuta, euskara maila hobetu edo ezagutza gutxienekoa jaso nahi duen gurasoentzat ikastaroak eskainiko ditugu, ahal dela, ikastolan bertan.

Ikasturtearen arabera, Euskaraz Bizi proiektuaz gain, garrantzia berezia hartuko duten ekimenak bizitzen ditugu Euskal Herrian, hala nola, **Euskaraldia** eta **Korrika**. Ikastolak dagokion bakoitzean ekimen horietan parte hartuko du modu ofizialean, eta gure ikasleekin ere landu eta ospatuko ditugu. Horretaz gain, guraso guztiei luzatu nahi dizuegu parte hartzeko gonbitea, baita zuen seme-alabekin bizitzekoa ere.

**ARGITXO IRATXOA:** Aurten ere Argitxok tarteka mezuak utziko dizkigu Soroan. Ulian bizi den iratxo magikoa da Argitxo. Tarteka bere berri izango dugu, gertakizun desberdinak iragarriko dizkigu eta bere mezuekin euskaraz hitz egitera animatuko gaitu; Argitxok ez baitu beste hizkuntzarik ulertzen.

## 7.GURASOekin HARREMANA

---

### **Bilera orokorrak:**

Irailaren 19an: Harrera garaiaren berri eman eta gure antolaketaz zein metodologiaz hitz egiteko.

Maiatza: Bigarren bilera bat antolatu izan ohi dugu Arotz-Eneako egonaldiaz hitz egiteko.

### **Gurasoekin bakarka:**

Zuen seme-alabaren garapenari buruzko informazioa trukatzeko, urtean gutxienez 2 aldiz elkartzeko gara zuekin. Edozein motatako kezka edo beharra ikusiz gero, behar den maiztasunez bilduko gara.

## 8. GURASOEN PARTAIDETZA IKASTOLAN

---

Gurasoak Zurriola Ikastola IKE kooperatibako partaide nagusiak izanik, Ikastolaren norabide estrategikoaren ardatza dira, besteak beste, Batzarra, Artezkaritza Kontseilua eta Eskola Kontseiluaren bidez. Aldi berean, gurasoek partaidetza hori areagotzeko aukera dute Olarrizuren bidez. Olarrizu IGE Zurriola Ikastolako ikasleen guraso-elkartea da. Ikastolaren kooperatiba-izaera bultzatu nahian, bazkide guztion partaidetza sustatu nahi du, bi helbururekin: ikastola osatzen dugun kolektibo guztien arteko harremana sendotzea eta, auzolana bultzatuz, gure seme-alabentzat eredu izatea.

Martxan dauden eta sortu daitezkeen ekimenak aurrera eramateko eta koordinatzeko, batzordeak osatu dira. Batzorde horietan gurasoak dabilta jarduera hauek antolatu eta hobetu nahian. Batzordeak proposamenak egin eta lantzeko prest dauden guraso guztientzat daude irekita. Gaur egun, ondorengo guraso-batzordeak daude martxan: Euskara Batzordea, Jai Batzordea, Mugikortasun Batzordea, Kirol Batzordea, Komunikazio Batzordea, Haurren Danborrada Batzordea, Helduen Danborrada Batzordea, Jangela Batzordea eta Zurrimendi. Batzorde hauetako batean parte hartu nahi izanez gero, ondorengo helbidean harremanetan jarri. Ikastola GUZTIOK, GUZTIONA, GUZTIONTZAT baita.

**[artezkaritza@zurriolaikastola.eus](mailto:artezkaritza@zurriolaikastola.eus)**

Bestalde, zuen seme-alaben heziketa integralean Ikastola eta familien arteko elkarlana ezinbestekoa dela ulertzen dugun heinean, ildo berean joan ahal izateko guraso-eskola saiok eskaintzen ditugu urtero. Unean uneko gaiak eta datak jakin bezain laster, haien berri emango dizuegu.

## 9. GELAKO GURASO ORDEZKARIAK

---

Gurasoen partaidetzarekin jarraituz, gela bakoitzean guraso ordezkari bana eta ordezko bat aukeratuko da. Ordezkar horiek bitartekari lanak egingo dituzte ikastola eta gurasoen artean ikasturteko harremanak ahalik eta egokienak izan daitezen. Hori dela eta, ikastolarekin eta ikastolarentzat lan egiteko prest dauden guraso dinamikoak eta

boluntarioak behar dira. Guraso hauek beste gurasoak dinamizatu, koordinatu, proposamenak jaso, bideratu eta tutore, kudeaketa talde, zuzendaritza pedagogiko eta Artezkaritza Kontseiluko kide eta Batzordeen arteko harremana sustatu eta zainduko dute.

2020-2021 ikasturtean, guraso ordezkarien papera definitu eta indartu nahian, hauen funtzioak, lan-dinamika eta antolaketa moduak berraztertu eta berregokitu ziren. Adostutako informazioarekin txosten bat osatu zen, ordezkari berriekin partekatuko dena, lehen bilerara deituak izan aurretik.

Ikasturtero talde bakoitzean guraso ordezkari bat eta honen ordezeko bat izendatuko da; ordezeko gurasoa hurrengo ikasturtean ordezkaria izango da. Guraso boluntariorik ez balego, ikasturte hasierako guraso bileran zozketaz aukeratuko dira guraso ordezkariak eta ordezekoak. Zozketatik salbuetsiko dira lehendik ordezkari izandakoak.

## 10. KOMUNIKAZIOA

---

Ikastolak nagusiki ZURRIOLAKO ATARIA astekari digitala erabiliko du familiekin komunikatzeko (berriak, zirkularrak,...). Ostiralero zuen e-postan jasoko duzue "Alexia" plataforma bitartez eta egun honetan bertan **ikastolako web orrialdean ere eskuragarri** izango duzue. Hau horrela izango ez balitz, Alexiarekin gora beheraren bat egon daiteke eta alexiazalantzak@zurriolaikastola.eus helbidera idatzi beharko zenukete. **Zuen datu pertsonaletan aldaketarik izanez gero**, idatzi ezazue idazkaritzara:

**idazkaritza@zurriolaikastola.eus**

### HAURREN E-POSTA:

Haur guztiei ikastolako e-posta sortuko zaie ikastolan hasten direnean. Helbide hau taldeko DRIVE karpeta osatzeko erabiliko dugu, inolaz ere familiekin komunikatzeko. Besteak beste ikasturtean zehar ateratako argazkiak, lantzen ditugun abestiak eta etxeratzeren bat gertatuz gero proposamenak egiteko gunea izango da.

Haurren e-postarekin edozein arazo izanez gero, jarri harremanetan IKtetako arduradunarekin:

[ikt@zurriolaikastola.eus](mailto:ikt@zurriolaikastola.eus)

## 11. BESTE OHAR BATZUK:

- Aurkitutako **izen-abizenik gabeko arropa** beheko esekitokietan utziko dugu. Hilabeteko azken ostiralean hortik kenduko dugu. Zerbait falta baduzue tarteka begiratu, faborez.
- **3 URTEKO haurren kasuan, ikastolara barruko arropa bat eta galtza batzuk ekarri.** Kaxa batean sartuko ditugu eta guztiok guztiona erabiliko dugu. Haurra etxera ikastolako arroparekin joango balitz ahalik eta azkarren ekar ezazue ikastolara.
- **Hamaiketakoa:** haur bakoitzak dagokionean hamaiketakoa ekarriko du talde guztiarentzat. Zer ekarri behar duen jakiteko lepokoa eramango du etxera.
- Urtebetetzeak taldeka ospatuko ditugu. Hau ospatzeko bizkotxo eta kandelak ekarri. Bestalde, ez ekarri litxarkeriarik edo txokolaterik.
- **AUTOBUSA:** 2 eta 3 urteko haurren kasuan izen-abizenak eta ohiko geltokia adierazten duen lepokoa ekartzea lagungarria litzateke. Geltokian haurra jasotzera inor etorriko ez balitz, haurra ikastolara itzuliko litzateke eta familiarekin kontaktuan jarriko ginateke.
- Haurren aulkitxoak sarreran dagoen espazioan utz ditzakezue, tolestuta eta lotuta. Hala ere, kontuan hartu, ikastola ez dela bertan utziko denaren lapurreta edo desagerpenen arduradun.

## 12.ERANSKINAK

---

### **SOROAKO ATARIA**

Arratsaldeko 5:00etan, haurrak jasotzen dituzuenean, ATARIAn geratzeko aukera daukazue. Momentu polita da haurrak familiarekin batera lagunartean elkarrekin egoteko. Ikastolan, irteera momentua sarrera unea bezain garrantzitsua da. Haurrak beste haurrekin, gurasoak haurrekin, gurasoak beste gurasoekin... ingurune aproposa da egunean zehar edo astean zehar ahuldu diren era askotariko harremanak sendotzeko. Beraz, bertatik animatzen zaituztegu leku eta une horretaz disfrutatzeke.

Momentu horretan, aldi berean, egunean zehar nolabaiteko jolas eta heziketa-antolaketa izan duen ingurune horrek beste egituraketa, beste tankera bat, hartzen du nahita nahiez. Aldatzen ez den gauza bakarra zera da: **helduok gara arauen zaintzaile eta haurren eredu**. Hori dela eta, zenbait arau edo jokabide gogoraraztea egokia iruditzen zaigu, ATARIAK denona izaten jarrai dezan:

- **Gurpildun jostailuak eta baloiak** debekatuta daude.
- **Motorrak** gordetzen ditugun espaziora ez sartu.
- **Haurrak hesietara igotzen ez direla begiratu** (batez ere senide helduagoak etortzen direnean).
- **Txakurrak Atari barruan sartzea**, aske zein lotuta egon, **debekatuta** dago.
- ATARIA denona izateaz gain **ATARI txukuna** izatea nahi dugunez, gogoratu:
  - **Ikastolan birziklatzen dugu**: hondakin bakoitza bere ontzira bota.
  - **Komunak zaindu** eta txukun mantendu.
  - **KOMUNETIK BEHERA TOALLITA EDO KOMUNEKO PAPER BUSTIRIK EZ BOTA**, mesedez. Oso kutsakorak izateaz gain, estolderian arazo larriak sortu dituzte dagoeneko.
- 16:45etik aurrera **ezin dira barruko komunak edo gelak erabili**. Garbiketako langileak euren lana egiten ari baitira.
- Ez ahaztu Ikastola euskararen arnasmune dela, **erabili eta sustatu dezagun euskara guztion artean!**

**Eta GOGORATU**, esaera zaharrak dioten bezala "LAGUNARTEAN ORDUAK LABUR", beraz konturatu orduko oso litekeena da Ataria itxi behar izatea. Hortaz, kontutan hartu:

**ATARIA 18:00etan IXTEN DA,  
bitartean disfrutatu ATARIAZ**

## **!EUSKARAZ BIZI DEKALOGOA**



### **1. IZAN EREDU**

Umeez ez dituzte aginduak maite, ereduak kopiatzen dituzte. Beraz, gurasook izan behar dugu eredu.

### **2. IKASTOLA EUSKARA ERABILTZEKO GUNEA**

Ikastola gune egokia da euskara erabiltzeko, baldintza egokiak ditu: ezagutza altua eta jarrera baikorra du jendeak. Askorentzat gune egoki bakarrenetakoa da euskaraz aritzeko.

### **3. ERABILI EDO SAIATU**

Nork bere gaitasunaren arabera erabil dezake euskara. Ulertzen duenak bestei euskaraz egitea oztopatu gabe, zerbait dakienak euskaraz erantzun errazak emanez...

### **4. LEHEN HITZA EUSKARAZ**

Egunon! Agur! Zer moduz! batekin hasteak euskaldun bezala identifikatzen zaitu eta gure lehen irudia da garrantzitsuena.

### **5. GUZION ESKU**

Hizkuntzaren erabilera ekintza kolektiboa da beti. Adostasunera irits gaitezke gure solaskideekin.

### **6. JOERA ALDATU**

Hauts ditzagun egoera hauek: 4 euskaldun+ erdaldun bat= gaztelaniaz. Edo are larriagoa dena 4 euskaldun= gaztelaniaz.

### **7. GOGOZ EKIN BIDEARI**

Motibazioak, ezagutzak eta erabilerak elkar elikatzen dute. Euskara erabiltzen den lekuan ezagutza handitzen da eta ez dakitenek ikasteko motibazioa handitzen da. Baikortasuna, berriz, motorra da.

### **8. URRATSEZ URRATS**

Bakoitzak bere egoera eta beharren arabera ikas dezake euskara. Ez dakiena ikasten has daiteke, gutxi dakienak erabilera eta ezagutza hobetu ditzake ikastolan eta dakienak bestei lagundu diezaieke erabileran.

---

Ohar honen gaztelaniazko bertsioa [bertan](#) duzue irakurgai.  
La versión en castellano de este documento está disponible [aquí](#).